

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA

MENDEBALDEKO KANTAURIAR ARROEN BULEGOA

Amurrioko udalerriko (Araba) Sagarribai kalean hornikuntzako sarea instalatzeko eta Zamora zubira itsatsitako hoditeria igarotzeko obrak

Espediente-zenbakia: AO-B-2018-0380.

Eskatzailea: Amurrioko Udala.

Zamora zubiaren bitartez Nerbioi ibaiko jabari publiko hidraulikoa gurutzatuko duen ur-hornidurako hoditeria instalatzea da xedea, Amurrioko udalerrian.

Hori guztia orok jakin dezan ematen da argitara, iragarkia ALHAOn argitaratu eta bihar-munetik aurrera kontatzen hasi eta hilabeteko epean, eskatutako baimenak kalteak eragiten dizkietela irizten dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten epe horren barruan, Bizkaiko Uren Zerbitzuan, Bilboko Urkixo Zumarkalea 36an, Bizkaia Plaza Eraikina, 7. Solairua. Espedientea han izango dute, nahi duenak azter dezan.

Bilbon, 2019ko uztailaren 15ean

Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoaren burua
MARIAN ALONSO PRIETO